

Ormaiztegi. “Zumalakarregi Museoak hogeitxangoa antolatu dute”.

Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoak 20 urte beteko ditu aurten. Urteurrena ospatzeko antolatzen ari diren ekitaldi ugariaren artean ekainaren 20an txangoa egingo dute Nafarroara. Jose Mari Tuduri zinema zuzendariaren gidaritzapean Ameskoa eta Lizarraldea bisitatuko dituzte. Bi Karlistaldiek ingurune horretan utzi zituzten azpiegiturak eta paisaia bisitatzea eta historia ezagutzea dira helburuak. Horregatik jarri diote txangoari Karlistaldien paisaiak izena.

Ekainaren 20an goizean irtengo dira Nafarroa aldera. Goizeko bederatzieta Donostiako Amara autobus geltokian jarri dute hitzordua, eta ordu erdi geroago Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoa geratuko da.

Goizean 10:30ean Kontrastara iristea dute aurreikusita. Kontrasta antzinako herri gotortua da, eta Erdi Aroko harresiaren zatiak mantentzen ditu oraindik. Henningsenek dio Zumalakarregik ospitale bat kokatu zuela han. Kontrasta Jeronimo Valdesen tropa liberalen eta Tomas Zumalakarregiren karlisten arteko borrokaren lehenengo behatokia da (1835eko apirila).

Zudairera joango dira hurrena, eta han hamaiketakoa egingo dute. Ameskoa Barrengo hiriburua da Zudaire, eta haranaren erdian kokatuta dago, Urederra ibaiaren ertzean. Hiribildua Urbasako malkar harritsuaren azpialdean dago. Valdesen tropa liberalen eta Zumalakarregiren karlisten arteko borrokaren bigarren behatokia da Zudaire, 1835eko apirilekoa.

Eguerdiko ordubatean Abartzuzan Murumendi bisitatzeko asmoa dute. Murumendiko muinoan karlisten lubakiak ikusiko dituzte, 1874. urteko borrokaren ondorioak.

Eguerdiko ordubiak eta erdietan Lakarren egingo dute geldialdia. Valdesen eta Zumalakarregiren tropen arteko borrokaren laugarren behatokia da. Gerra hartan karlistek lortu zituzten garaipenen artean azkenekotakoa (1875eko otsaila) han gertatu zen.

Txangoan parte hartzen ari direnek Lakarren bazkalduko dute, bertako upategian.

Bazkal ondorenean, 17:30a inguruan, iritsiko dira Lizarrara. Hura izango da bi tropen arteko borrokaren bosgarren behatokia. Pura egingo dute bisitaldia. Pui Marotok agindutako fusilamenduen gunea izan zen.

18:30a inguruan, itzuliko dira etxera. Batzuek Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoaren aurrekaldean egingo dute geldialdia eta besteek Donostiako Amara autobus geltokian.

Txangoan parte hartzeko asmoa duenak 60 euro ordaindu beharko du. Prezio horren barruan sartzen dira joan-etorria, bisitaldi gidatua, hamaiketakoa, bazkaria eta istripu aseguru.

Zumalakarregi Museoko arduradunek jakitera eman dutenez ezarritako kuotaren ordainketa kontuan hartuta erreserbatuko dituzte autobuseko tokiak. Bestalde, informazio gehiago eskuratu nahi duenak Zumalakarregi museoko telefono zenbakira deitu dezake (943 88 99 00).

Ibilbidea

Irteera. 9:00etan Donostiako Amara autobus geltokitik/ 9:30ean Ormaiztegiko Zumalakarregi museotik.

10:30. Kontrasta.

11:30. Zudaire. Bertan egingo dute hamaiketakoa.

13:00. Muru Mendi (gotorlekua).

14:30. Lakar. Bazkaria upategian egingo dute.

17:30. Lizarra.

18:30. Itzulera, Ormaiztegira eta Donostiara.

Estitxu Imaz